

# Emakume zientzialariei aitortza

GU HERRIKO  
STEM  
EMAKUMEAK

elhuyar

Alcorta

BERKOA



DANOBATGROUP

Etsetar

AM Campus





Santa Ana Kalea, 8 - Elgoibar  
622 633 468 - 943 097 226



@elissebeauty\_elg @elisse\_nails



## Elisse estetika, gailu aurreratuenek eta edertasunak harmonian bat egiten duten lekua

Duela hilabete eskas ireki zuen Marta Leivak estetika-zentroko atea Elgoibarko Santa Ana kalean. Osasunaren eta estetika aurreratuaren munduan murgiltzen eta trebatzen urte luzez jardun ondoren, edertasun-zentroa zabaltzea erabaki du Elgoibarko Santa Ana kalean. Herri honek eskuzabalik hartu zuen duela sei urte baino gehiago eta, orain, etxean bezala sentitzen dela dio.

► **Marta, kontaguzuz, zein da Elisse estetika-ri balioa ematen dion ezaugarri bereziena?**

Estetika eta teknologiarik berritzaileena harmonia perfektuan uztartzen dituzten aparatu aurreratuak erabiltzeko apustu sendoa egin dugu Elissen, eta esango nuke hori dela nabarmentzen gaituen ezaugarria. Zentruan hainbat makina daukagu, inbadi-tzaileak ez diren tratamendu estetikoak eskaintzen ditugu eta lehen egunetik bertatik emaitza harrigarriak lortzen ditugu.

► **Lokalaren zatirik ikusgarriena manikura eta pedikurak egiteko daukaguen espazioa da, baina zuen lana ez da horretara mugatzen. Tratamendu gehiago ere eskaintzen dituzue, ezta?**

Elisse zentruan tratamendu ugari eskaintzen ditugu eta horietako asko neurrira egindakoak dira gainera: hala nola, laser bidezko depilazio pertsonalizatua, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak, orbanak eta tatuajeak kentzeko tratamenduak, egurrezko erremintak erabiliz emandako masajeak, betileen luzapenak, hollywood peeling-a, coaching curly-a eta abar luze bat... guzti horiek, betiere, izendatzaile

le komun bat dute: teknologia aurreratuena erabilia egiten ditugula. Guzti horrez gain, aholkularitza pertsonalizatua eta eskusiboa ere ematen dugu.

► **Gutxi falta da udaberrirako, ospakizun eta ekitaldi asko izaten ditugun urtarorako, hondartzan eguzkitan egoteko sasoi hasten dugunerako. Zer tratamendu eta zerbitzu gomendatuko zenizkieke zure bezeroei probatzeko?**

Zorionez, geroz eta gutxiago egiten dugu lan urtaroei begira, jendeak urte osoan zaintzen duelako bere burua. Hala ere, bistan da eguraldi ona egiten hastarekin batera gehiago arduratzen garela orain arte gordean izan ditugun gorputzeko atalez. Horregatik, gehien eskatzen diren tratamenduak azala gogortzekoak edota zelulitisaren kontrako tratamenduak izaten dira. Baina baita aurpegiko tratamenduak ere, bezeroek nahi izaten dutelako dituzten konpromisoetara ahalik eta aurpegi onenarekin agertu, hala nola, jaunartze, ezkontza eta abarretara... Baina badira, besterik gabe, larruazala eguzkitik babesteko prestatu nahi dutenak ere.



**AZALA ZAINTZEN IKASTEKO** ikastaroa, doan.

**MARTXOAK 8, LARUNBATA, 10:30**

**Animatu zaitetz eta deituiguzuz! (talde txikiak)**

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Eduarne Izagurre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Iker Lauzirika **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.us/@barren@tkm.eus](https://mastodon.us/@barren@tkm.eus)

Iker Lauzirika

Zuzenbideko doktoregaia

## Enkajatzear edo(ta) etsitzeaz



**"Suposatzen dut  
ni neu ere  
gogor saiatu naizela  
hemen enkajatzan"**

**E**z dizu pegatzen Elgoibarkoa izatea" esanez hasi zuen aurkezleetako batek Uxue Alberdiren biografiaren errepaso *BTV* podcastean, duela hilabete gutxi. "Zeini pegatzen dio, ez?", zioen beste aurkezle batek. Atalean zehar etsitzeaz mintzo zen Uxue eta, besteak beste, aipatu zuen berak herrian *enkajatu* nahi izatearekin etsi zuela. Garai berdintsuan, Danele Sarrugartek, hizkeran nabaritzen ez omen zaion arren izatez Elgoibarkoa zela esanez abiatu zuen *Aldatzeko nahia* artikulua *Berrian*. Honek ere herrian ezin enkajatzeara zuten hizketarako gai; aldiz, Danelek, nolabait, Elgoibarri leporatzen zion horren errua.

Bi hausnarketa horiek nire elgoibartar izaeraz pentsatzea eragin didate. Gogoratu dut nik neuk ere, garai batean galdu nuen Elgoibarko hizkera kontzienteki errekuperatzeko esfortzua egin nuela. Suposatzen dut ni ere gogor saiatu naizela hemen enkajatzan. Hala ere, ahalegin horren ondorio naizen oraingo *popurri* trake-tsarekin ere ez dakit pegatzen didan elgoibartarra izateak. Enkajatu nahi izatearekin etsi dudana ere ez dut lar argi, egia esan.

Gogoeta hauek medio, azkenaldian maiz planteatu dut noizbehinka *BARREN-en* iritzi artikulua idazteko aukera. 2015eko libdub-a (malkoren baten konpainian) ikustean okurritu zitzaizkidan azkenekoz eta, aste berean, *BARREN-en* kopeta zimurtu zidan iritzi artikulua bat irakurtzean etorri zitzaizkidan bulkada definitiboak. Aitzitik, azken urteotan herritik gutxi pasatzen naizen honetan, herrian nire iritzia zabaltzeko legitimitaterik ez nuela pentsatzeak gelditu izan nau beti. Segurtasun-eza dela eta, A.-ri galdetu nion legitimitate falta horren inguruan. Hark galdera herrixari egiteko proposatu zidan. Hau da emaitza.

Kaixo, Elgoibar.



*BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

-----

## Haur helduak

Irakasle izateak munduarekiko beste ikusmira bat eskaintzen dizu. Hasteko, ez ditugu haurrak etorkizuneko gizakitzat hartzen, gaur egungo gizartearen kolektibo gisan baizik. Noiz utzi genion haur izateari? Nire iritzitan, inoiz ez.

Haurrak behatzen pasatzen dut denbora aunitz, eta ez haurrak bakarrik, helduak ere behatzen ditut. Batzuetan helduak haurrak bezala irudikatzen ditut. Pedagogia sistemikoak irakatsi zidan sisteman bizitutakoa sistematik kanpo berregiten dugula. Etxean jasotako plazerak eta minek markatu egiten gaituzte eta gu, bizitzatik, hori gaudituz nahian gabilta.

Hala ikusten ditut nik haurrak. Hala ikusten helduak. Hala neure burua ere. Ez genion haurrak izateari inoiz utzi. Plazerak eta minak sen-

titzen ditugu, txikitan sentitzen genituen egoera horietan eta heldutan hauek bilatu edota ekiditen ditugu. Beraz, haurren jokabide berdinak ditugu heldutan. Haurrak gara helduen gorputzetan, helduak izatera jolasten.

Inor ez da libratzen, denak gaude rol jolas honetan, gure minak leuntzen, gure plazerak biltzen. Egiten, janzten, esaten,... dugun guztiak geure buruaren inguruko informazioa ematen du. Gure indarguneak agerian paratzen dira, baita ahulguneak ere. Aspaldi trebatu nintzen hauek atzematen. Ordea, besteen nolakotasun hauek zintzoki, epaitu gabe, ikustean eta bidelaguntzean dago gakoa, irakasle, guraso, zein norbanako irekiak eta prestuak izan gaitezen.

Ainhoa Garaikotxea de Andres

**Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
www.barren.eus webgunean**

**943 743 704**  
**688 769 657**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

**Goldetu prezioak eta gustura erantzun dizugu.**

**MADU, igarle sendatzailea**

Bikote harremanak onbideratzen espezialista.

Begizkoa kentzen dut.

Sexu-ezintasuna sendatzen dut.

Zorte ona erakartzen dut negozio berrietarako; bideak zabaltzen ditut.

Eraitza onak %100ean ziurtatuta.

Harremanetarako: 647 449 544

**Tchin Tchin**  
PROGRESIBOAK

**BIGARREN BETAURREKO  
PROGRESIBOAK 1€ GEHIAGO  
ORDAINDUTA\***

**%100eko  
EGOKITZE-BERMEA**

**MAITEMINDU ZAITEZ HAIEKIN EDO ITZULI ITZAZU!**

\*Eskaintza honek 2025/02/04tik 2025/03/30era arte balio du. Espainia eta Andorrako ALAIN AFFLELOU optika guztietan. Ikus itzazu baldintzak optikan bertan edo afflelou.es webgunean. 1/25 erregistro-zenbakia.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10  
ELGOIBAR - 943 74 37 34**

**ALAINAFFLELOU**

Eskatu hemen hitzordua  
afflelou.es







Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Txakurrentzako parke berria iturria**

**falta da:** "Meliton zubi alboan egin duten parke berria txakurrentzako iturria falta da. Bero egiten duen egunetan, bereziki, ondo etorriko litzakete, izan ere, txakurrak korrika ibiltzen dira, eta egarria izaten dute. Iturririk gertukoena poligonoan dago. Eskertuko genuke gure eskaera kontuan hartzea".



### **Melitongo zubian putzua sortzen**

**da euria egiten duenean:** "Melitongo zubian zulo moduko bat dago eta euria egiten duenean sekulako putzua sortzen da. Urtebete inguru daramagu egoera horrekin eta eskertuko genuke konpontzea".



### **Amaitu al dituzte trenbideko lanak?:**

"San Roke kaleko bizilagunak gara, eta gure etxearen beheko aldetik trena pasatzen da. Azken asteetan mantentze lanetan aritu dira, gauzez. Etxe atarietan informazio-papel bat ipini ziguten, lanok trenak eragiten zituen arazoak gutxitzeko izango zirela azalduz. Gure harridurarako, guztiz kontrakoa gertatu da, eta obrak amaituta, askoz zarata handiagoa egiten du orain trenak. Horrela utzi behar al dute ala oraindik zerbait egitea falta zaie eta horregatik daukagu zarata hau? Lanak ez badituzte amaitu, ulertuko genuke. Baina amaitutzat eman badituzte, jakin dezatela, zarata asko handitu dela. Etxe askotan leiho bereziak dauzkagu zarata gutxitzeko, baina orain, lehen baino askoz ere gehiago nabaritzen dugu trena". Udaleko arduradunek ETSra bideratu dute kontsulta, eta



esan dietenez pare bat asteko lanak falta dira oraindik. Behin lan guztiak amaitutakoan zarata gutxituko dela aurreikusten dute.

## Punta-puntako robota instalatuko du Osakidetzak Mendaroko ospitaleko urologia zerbitzuan

**A**lberto Martinez Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua Mendaroko ospitalean eta Eibarko ospitalean izan zen eguaztenean, Debabarreneko ESiren beharrak ezagutzeko, eta Mendaroko ospitalera egin zuen bisitan jakinarazi zuen, aurki, martxoaren 27an, kirurgiarako azken belaunaldiko robot bat jarriko dutela Urologia zerbitzuan. Robot horri esker, ebakuntza-denborak murriztu ahal izango dituzte eta lanean ari diren kirurgialariek erosoago lan egin ahal izango dute, postura hobean. Zehaztasun handiagoz ere lan egin ahal izango dute eta, ondorioz, ebakuntza osteko errekupeazio hobea izango dute gaixoei. Martinezek esan zuen, robot hori erabiliko duten profesionalak formazioa jasotzen ari direla orain.

Gaur egun, era honetako robot bakarra dago, Donostiako Ospitalean. "Mendaron instalatuko dugun robot honi esker Donostiako ospitaleko lan-karga arindu ahal izango dira, eta era berean, itxaron-zerrendak ere murriztuko ditugu. Momentuan, urologia zerbitzuan erabiltzeko jarriko dute robot, baina aurreikusten dute aurrerago beste zerbitzuetan ere erabili ahal izatea.

Eibarko anbulatorioan, berriz, sotoa birmoldatuko dute, eta solairu horretara lekualdatuko dituzte gaur egun arreta asistentzialarekin espazioak partekatzen dituzten zerbitzu orokor guztiak. Era berean, sailburuak aipatu zuen martxoan Osakidetzak lizitaziora aterako duela dentsitometro baten erosketa. Osteoporosiaren diagnostikorako erabiltzen da dentsitometroa, eta ondo bidean, urte amaierarako izango dute Eibarko ospitalean. Debabarrenara egindako bisita Elgoibarren amaitu zuen sailburuak. Elgoibarren anbulatorio berria eraikiko duten ingurua ikusten izan zen.

## Herrian errotera bultzatzeko bono kanpaina hasiko du Mendaroko Udalak bihar, hilak 22



Otsailaren 22an hasi eta martxoaren 16ra arte irauko du bono-kanpainak, eta bonua erosten duten herritarrek 30 euro kontsumitu ahal izango dituzte, 20 euro ordainduta. Herriko hamabi establezimendu batu dira bono kanpainara: Antton harategia, Art fruit fruta denda, Coviran supermerkatua, Farmazia, Galle-Tiak gozotegia, Leire jantzi denda, Lutximak ile-apaindegia, Morroskillo denda, Olatz ile-apaindegia, Roteta supermerkatua, Sonia supermerkatua eta Saint Gerons txokolategia.

## Gerragatik eta goseagatik estatu mailan migratu zutenen ahotsak biltzeari ekin diote Mendaron

Eustaten iazko datuen arabera, 2.025 lagun bizi dira Mendaron eta horietatik 458 Gipuzkoa, Araba eta Bizkaitik kanpokoak dira sortzez (%22,62). 1.817 lagun Espainiako estatuan jaiotakoak dira, eta gainerako 182, estatutik kanpora. Hizkuntzari dagokionez, eta Eustaten 2021eko datuak aintzat hartuz gero, 925 lagunek euskara dute etxeko hizkuntza, eta gaztelania 817k (82 lagunek euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat dute). Migrazioaz orokorrean hitz egiteko aukera ematen dute datuok, baina gerragatik eta goseagatik estatu mailan migratu zutenengan jarriko dute begia Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak eta haren aterkipean sortu zuten Diversas emakume migranteen taldekoek. 36ko gerraren eta Frankismoaren testuinguruan migratu zuten haien ahotsak bildu nahi dituzte, eta zapatuan egin zuten lehenengo bilera grabazio-egunak zehazteko. Harremanetarako: [mendarokotratuon@gmail.com](mailto:mendarokotratuon@gmail.com)

## Etorkizuneko ekintza-ildoak lantzen hasi da Gipuzkoako EAJ-PNV Debabarrenean

Debabarrena eskualdeko erronka politiko, sozial eta ekonomikoei aurrea hartzeko estrategia lantzen hasi da Gipuzkoako EAJ-PNV alderdia, eta, horretarako, Mendaro, Elgoibar, Mutriku, Deba, Soraluez eta Eibarko erakundeetako ordezkariekin batu da Gipuzkoako Buru Batzarreko presidente Maria Eugenia Arrizabalaga. EAJtik jakinarazi dutenez, etorkizuneko ekintza-ildoak aztertu eta landu zituzten batzarrean eskualdeko alderdikideek, eta Arrizabalagak konpromisoa hartu zuen gizartean, kulturean zein ekonomian sare berriak sortzeko, "etorkizuneko abertzaletasunaren ikuspegi irekia" ardatz hartuta.

EAJtik azaldu dute hiru helburu nagusi dituela eskualdean gauzatu nahi duten estrategiak. Batetik, lurraldeko lehen indarra izatea esparru politikoan; bestetik, aldaketa eta berrikuntzaren eragile izaten jarraitzea, "gizartearen behar berriei erantzuteko eta ikuspegi irekia mantentzeko"; eta, azkenik, abertzaletasunaren etorkizuneko erronkei erantzutea, "ikuspegi euskaldun, ireki eta zabalago batetik lan eginez, modernitatearen eta tradizioaren arteko oreka bilatuz".

### Debabarrenerako proiektu nagusiak

Debabarrena eskualdearen garapenerako proiektu estrategiko nagusiez ere aritu ziren.



Besteak beste, mugikortasun iraunkorra sustatzeko metropoli-tranbia eta bidegorri sarea garatzea, degradatutako lur industrialen berreskuratzea, eta enpresa-lehiakortasuna sendotzeko eta berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko Hub BPTD ekimena garatzea aipatu zituzten. Era berean, jakinarazi dute eskualdearen lehiakortasuna eta bizi-kalitatea bermatzera bideratutako trantsizio energetikorako planak eta gazteen talentua erakarri eta atxikitzeko ekimenak ere landu zituztela. Ekintza horiek Debabarrena "lurralde kohesionatu eta etorkizunera begira prestatuta dagoen eskualde bihurtzeko" diseinatuta daudela zehaztu dute. Eskualdea indartzeko eta herri txikien erronkei erantzun egokia emateko beharraz ere berba egin zuten batutakoek, eta "alderdiaren ikusgarritasuna eta abertzaletasuna suspertzeko eta dinamizatzeko" ekimenak ere landu zituzten.

## 300 intxusa eta haritz landare landatu dituzte herriko familiek Mendaroko Plaza auzoan, Naturtzaindiko lagunen gidaritzapean

Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak egin zuten deia iganderako eta dozenaka lagun elkartu ziren plazan, arbolak landatzeko. Iñaki Aizpurua eta Jon Zulaika Naturtzaindiko biologoek eman zituzten azalpenak eta Plaza auzorantz abiatu ziren denak oinez, Intxusai errekarren inguruan zituztelako landatzekoak arbolak. Guztira, 300 intxusa eta haritz landare sartu zituzten han, erreka bazterrean intxusak eta goragoan haritzak. Argazkiak: [barren.eus](http://barren.eus)





## JON GARATE ONDARRE

Argazkilaria

✍️ Ainara Argoitia / 📷 Jon Garate

Ingeniaria da ikasketaz Jon Garate Ondarre (Elgoibar, 1987), baina azkeneko bost bat urtean argazkilaria freelance gisa ari da, arreta, denbora eta ahalegina benetan interesatzen zaizkion gaietan jarrita. Argazkia eta bideoa egiten ditu, eta biak uzartu ditu bere azken proiektuan ere. Urtarrilean, Jordania izan zen errefuxiatu palestinarren kanpalekuetan dokumental bat grabatzen, baina askotari-koak dira bere lanak. Markinako Lea Artibai Lanbide Heziketako ikastetxean eskolak ematen ere ari da orain, eta handik bueltan batu gara berarekin, argazkilaritza ulertzeko duen moduz aritzeko.



### Formazioz ingeniaria, eta afizioz eta ofizioz argazkilaria. Nolatan?

Ingeniaritza informatikoa ikasi nuen eta ikasketei lotutako ofizioetan jardun nintzen hamar bat urtez, pandemiara arte. Orduan jabetu nintzen egiten ninduenak ez ninduela horrenbeste betetzen eta aldaketa bat behar nuela. Eta heldu nion serioago argazkilaritzari, nire mundu ikuskeragatik gehiago betetzen ninduelako. Hein batean aitarengandik datorkit argazkilaritzarako afizioa. Ongarri argazkilaritza taldean ibili zen bera, eta gure etxean beti izan dira argazki-kamerak, baina hala ere, esango nuke mendian egindako jardunetik iritsi nintzela ni mundu honetara. Gaur egun, Oñatin bizi naiz eta Ilunpetan Argazki Taldeko kide naiz.

### Pandemia! Zenbat klik eragin ote zituen!

Bai, esango nuke denoi eragin zigula. Batetik, lan-baldintzak aldatu zitzaizkigun, eta bestetik, sentitu genuen oso ahulduta gelditu zitzaizkigula ordura arte eraikita geneuzkan hainbat egitura sozial eta pentsamendu. Nik, gainera, gertuko lagun bat ere galdu nuen, oso gazte, eta erabaki nuen bizitza beste modu batean planteatzea, ez gaudelako luzarorako hemen. Ez zen hausnartu gabeko pausoa izan hala ere, eta diot askok hala pentsatzeko joera izaten dutelako, batez ere industria mundutik kulturara gerturatzen garela diogunean.

*“Egiaz interesatzen zaizkidan gaietara gerturatzeko aukera ematen didan bizibidea da argazkilaritza”*

### Izan ere, prekariora da askotan kulturaren eta sortzaileen egoera. Hala salatu du Lanarteak ere.

Bai, bada prekariora, eta horrek askotan nagia eragiten du pausoa emateko orduan, baina uste dut bere burua egoera zaurgarri batera bultzatzen duenak ere nekez uzten diola zuloan jausten.

### Zer da gaur argazkilaria freelance-a izatea?

Niretzat bizibide bat da ia-ia. Munduarekin harremanetan jartzeko bidea da, benetan interesatzen zaizkidan gaietara gerturatzeko aukera ematen didan bizibidea. Eta esango nuke, kulturako beste zeregin guztietan moduan, asko egin behar dela doan edo diruari gehiegi erreparatu gabe, dirua irabazteko bidea egiteko. Saiatu naiz ateak jo eta muturra sartzen motibatu nauten gauzetan edo interesa izan dudanetan. Argazkilaria freelance-ak kontziente izan behar du gauza

batzuei beste begirada batekin begiratu behar diela, jabetzeko benetan zer egin nahi duen, zerk motibatzen duen, eta hori, jakina, ez da beti dirutan neurtzen. Modu honetan aritzeak aukera eman dit, adibidez, kamerarekin Amoranteren munduan barneratzeke, eta zorionez, gainera, lan ordaindua izan da hori. Izaten dira sorpresa txarrak ere, baina ikuskera hau izanda, bizitzak opari asko egiten dituela esango nuke.

**Ikusi ditugu zure mendiko argazkiak, fotokazetaritzako lanak, bai eta irakurketa motelagorako bidea ematen duten lanak ere, tartean AHTren obren inguruko 'Noraezean' erakusketa.**

Bai, denetarik egin behar da, norberak nahi duen hori egin ahal izateko; Bihar [otsailak 7], esaterako, Maccabi Israelgo taldeak Gasteizen jokatzen du eta *Hordago el Salto* komunikabide autogestionatuarentzako argazkiak egitera joatekoa naiz. Lan horrek azkartasuna eta irakurleak erraz ulertzeko argazkiak egitea eskatzen dit. Baina badaude beste gai batzuk asko irabazten dutenak irakurketa motelago bat eginda, eta hori da AHTren obren kasua. Idatzizko generoetara etorrita, saiakera baten tipoko zerbait liriateke bi urte eta erdiko lan baten emaitza diren argazkiok. Arrasaten, Atxondon, Elorrión... gure inguru gertuan egindako argazkiak dira, erakusten digutenak gure inguruko gordailu naturala txikituta eta pentsarazten digutenak lurraldeari buruz daukagun ikuspegiaz. 2022ko maiatzean egin nuen lehenengo argazkia, Atxondon, eta denbora eman dut gaiari ertzak topatzen. Saiatu naiz argazkien bidez nire kezkek azalertzeko. Ez zait gustatzen porlanaren negozioa sustatzen duen eredu, eta *Noraezean* proiektuan hori erakutsi nahi izan dut: ez daukagula hain garbi nora goazen, obrek jarraitu arren.

**Eta gure inguru gertutik Jordaniara egin duzu salto azkena. Nolatan eta zertarako?**

Kasualitate batzuk batu dira. Batetik, beti izan dut halako maitemin erlazio bat Ekialde Hurbilarekin eta, bereziki Palestinarekin, euskal herritar askok ezinbestean daukaguna. Bestetik badu honek pandemia garaian egin nuen klikarekin loturarik, orduan izan bainuen estreinakoz aukera Lesboseko errefuxiatuentzako kanpalekua eta hango migrazio mugimendua ezagutzeko, bikotekidea eta beste hainbat ezagun han ibili zire-

*"Ez nator bat porlanaren negozioa sustatzen duen ereduarekin, eta 'Noraezean' erakusketan erakutsi nahi izan dut ez daukagula hain argi nora goazen"*

lako lanean. Estreinakoz izan nuen orduan prentsak beste aldean kokatzen duen jendearengana gerturatzeko aukera, eta Gobernu Kanpoko Erakunde batekin izan genuen harremanaren baitan, hiru astez gure pisukide izan genuen Jordaniako neska bat ezagutzeko aukera izan nuen. Bikotekidea eta biok, mendizaleak izanda, beti izan dugu Jordania begiz jota, eskaladarako toki paregabea delako, eta joan ginen lagunaren eskutik hara. Geroztik lau aldiz egon gara Jordanian eta errefuxiatu palestinarren errealitatea ezagutu dut han, Jordaniako herritarren %60-70 errefuxiatu palestinarrek direlako. Dokumental bat grabatzen izan nintzen Gabonetako oporraldian han.

**Nola egin duzu beren herrialdetik kanpo bizi den komunitate palestinarrengana iristeko?**

Jordaniara joan ginen aldietako batean, joaneko bidaia bakarrik hartuta joan ginen, proba-



*Baq'a'ko errefuxiatu gunean, grabazio lanetan.*

tu nahi genuelako han aldi baterako gelditzeko aukerarik ba ote geneukan, eta lotu nuen hori fotokazetaritzarekin. Osatu nuen sare bat hango kazetariekin eta hortik sortu zait aukera hau, Gazako kazetari lagun baten eskutik. Bera Jordanian bizi izan da betidanik, baina ez dauka hiritartasunik, eta aldiro berri behar izaten du errefuxiatu palestinarra dela ziurtatzen duen dokumentazioa. Urtarrilean grabatu genuen dokumental estiloko laburmetraia, eta ondo bidean, otsail bukaerarako amaituko dugu.

### **Kolaborazio lan horretan zein izan da zure papera?**

Laguna eta bion artean hitz egindako proiektua izan da, baina niri erreparo halako bat ematen dit Mendebaldekoa izanda hangoen errealitatea kontatzen hastea, eta asko zaindu dut gerturatze hori nola egin behar nuen. Kontziente izan naiz uneoro 40 urte bueltara gerturatzen ari naizen gizonezkoa naizela, Mendebaldekoa eta zuria, eta uneoro aritu naiz nire buruari galdezka ia begirada dekoloniala nuen. Galdetu diot nire buruari hegemonikoki nor naizen eta saiatu naiz argi izaten nora nindoan, eta zer kontatzera. Nik ez nuen izan nahi kanpotik hangoa kontatzera doan norbait, eta are gutxiago, orain, konturatu garenean han bertako kazetariak izan direla klabeak Gazan gertatzen ari zena kontatzeko. Hasieratik laga nion garbi lagunari zuzendaria bera zela eta nik bota nitzakeela ideia batzuk, baina erabakiak berak hartu behar zituela, maitasun handienarekin lan eginda ere ni ez naizelako sekula hangoa izango. Taldekide guztiak emakumeak izan dira eta sekulako esperientzia izan da hori, altxor bat, gizonezkoekin lan eginda badakigulako beti josten dela erreferente batzuegana, estetika jakin batzuetara eta gizontasun eredu jakin batera.

### **Hegemoniatik aldentzeko ahalegin kontzientea egin duzula alegia.**

Ahalegin bat izan da, baina badakit beti ez nuela lortuko, ni ere natorren lekutik natorrelako. Urazandin jaio nintzen 80ko hamarkadan, eta marka hori beti eramango dut nirekin, nahi ala ez. Baina beste argazkilari lagun batzuekin sarri komentatzen dut ez dela horrenbeste zer gertatu zaigun bizitzan, baizik eta non kokatzen garen gauzei begiratzeko orduan. Iruditzen zait kasu honetan itxuran egin ditugula gauzak. Gero ikusiko dugu



*AHTren obrak, 'Noraezean' proiektuko argazkia.*

norbaitek erosten digun dokumentala edo ez, baina lan polita egin dugu eta, kasurik txarrean, Interneten eskegiko dugu eta pozik geldituko gara egindakoarekin. Pertsonalki lan honek bidea eman dit iristeko kuriositate handia nuen leku batera, iristeko oso militarizatuta dauden kanpalekuetara. Izan ere, polizia sekretaz josita daude.

### **Zer kontaktu duzue dokumentalean?**

Belaunaldiz belaunaldi transmititu den Palestinako brodatze-arte zaharrari buruzkoa da (Tatriz edo Tatrez). Tatrizari garrantzi handia ematen diote palestinarrek, eta belaunaldien arteko kultur transmisiorako eta herri identitatearen transmisiorako oso elementu garrantzitsua izan da beti. Herri identitatearen transmisio hori ematen da, gainera, batez ere emakumezkoena den leku batean, eta horrek aukera ematen digu beste irudi bat zabaltzeko. Oso ohituta gaude Hamaseko militantek edota Jihad islamikoa talde palestinarreko gizonak ikustera kalean fusilekin armatuta,



baina emakume palestinarrek ere izan dute beren gerra-eremua eta izan da kulturala.

### **Grabatzen jardun zaren denboran zerk harritu zaitu edo zenbatetan jarri zaizkizu hankaz gora zuk palestinarrez zenituen usteak?**

Ez naiz joan hara ohiko turista baten gisa, ez naiz joan pentsatzen hangoa nire zerbitzura jarri behar denik kanpotik noalako. Saiatu naiz asko irakurrita joaten, zer dagoen informatuta alegia, eta beharbada horregatik ez dut ezusteko handirik hartu. Dena guk daukagunarekin alderatzeko joera hori asko zaindu dut propio, batez ere askatasuna-eta moduko gaietan. Musulmanak dira gehienak han, oso islamiarrak, nire hango lagunak ezkertiar eta komunista xamarrek diren arren, eta askatasuna hangoa dute. Oro har esango nuke oso herrialde erresilientea dela; oso harro daudela euren jatorriaz. Esango nuke beren herri-identitatea sendo mantentzea dela, hain justu, palestinarren identitate-ikurra. Ez dira sekula txikitzen ezeren aurrean. Nire lagun honek, esaterako, askotan izan ditu zerbitzu sekretuetako polizia gainean, sare sozialetan Gazako genozidioa salatzeagatik. Askotan eraman dute komisaldegira eta mehatxu egin diote familia osoari bizileku-baimena kentzearekin ere, baina ez da sekula isildu.

### **Galderak zaizkizu lanerako abiapuntu. Zer galdera egin diozu zeure buruari handik bueltan?**

Bidaiatu daiteke Palestinara? Palestinarrei laguntzea da hara bidaiatzea? Bikotekidearekin sarririk hitz egin izan dut horren inguruan, azkenekoz Jerusalem bisitatu nahiko lukeela esan zidanean. Niri ere sortzen dit kuriositatea egia esan, baina ez ditut hiru egun pasatu nahi bidean israeldarrekin jatorra izaten deuseztatze-esparru zabal batera joateko. Beti izan dut hori nahiko garbi eta indartu zait uste hori lagun palestinar batzuekin izandako solasaldi baten ondotik. Palestinan egona nintzen galdetu zidaten eta esan nien ez neukala argi dauden egoeran hara joatea nahi dudana. Eta erantzun zidaten eurek nahiago zutela ez, entitate genozida bati dirua ematea delako. Badakit, gainera, Hussein zubian barrena Jordaniatik Palestina okupatura pasatzen direnei paper batean sinatzen dietela pasaporteak, pasaportean bertan sinatuz gero pertsona horrek ezingo lukeelako gero herrialde arabiar bakar batean sartu.

## *"Tatritz edo Tatreez belaunaldiz belaunaldi transmititu den Palestinako brodatze-arte zaharrari buruzkoa da Jordanian grabatu dugun dokumentala"*

### **Zer beste duzu orain esku artean?**

Zarautzen erakusgai izan ditudan AHTren obrei buruzko argazkiak dauzkat orain erakusteko moduan, baina 2025a esploratzeko eta jolasteko urtea izango da niretzat. Denbora asko daramagunearan ideia berari bueltaka, gorputzak gelditzea, poltsa hustea eta begirada zabaltzea eskatzen du. Landu nahiko nukeen gai kontreturik ez daukat. Miresten dut fotokazetaritzan diharduten lagunek istorioak ikusteko duten gaitasuna. Ni horretan desastre bat naiz. Badaude interesatzen zaizkidan gaiak, baina kosta egiten zait ikustea nondik gerturatu nahi duan gai horretara. Eta etengabe aritzen naiz neure bururi galdezka. Begira, Anna Surinyach argazkilaria katalanari, *5W* aldizkariako editore grafikoa, entzun nion behin esaten argazki batek ez dituela mila hitz baino gehiago balio behar; argazki batek mila galdera baino gehiago sorrarazi behar dituela. Gustatzen zait argazkilaritza ulertzeko modu hori, iruditzen zaidalako bizitzan ere hala dela: 'Hau horrela da' esaten digutenean baino gehiago ikasten dugu zerbaitetaz pentsarazten digutenean.

### **Mendiko argazkien bidez ezagutu zintugun. Argazki ederrak ziren, testu motz eta poetikoekin lagunduta ematen zenituenak. Baduzu idazteko zaletasun hori ere, ala?**

Izan nuen garai bat mendian argazkiak egitekoa, bai, eta beti esaten dut bizitzak egin zidan oparia izan zela hori, baina gaur egun ez naiz hori, eta ez daukat zapatu goizetan izotz bila mendira irteteko lehen nuen azkura hori. Testuak... Bannuen orduan mendia erromantizatzeke joera. Bost eguneko lan-astearen ondoren bi eguneko gozamenaren mendian ibiltzea. Bidaiak luzeak izaten ziren, eta ordu asko izaten nituen nire baitara bildu eta pentsatzeko edo lagunarekin hitz egiteko, eta horri erantzuten zion horrek. Jende askok aipatu dit kontu hori, eta badakit jende batek horren falta ere igarri duela, baina hori amaitu zen.

## Emakume zientzialariak, oholtzara



*'Bizilabe' egitasmoan parte hartzen duten emakumeak Herriko Antzokian.*

2019an jarri zuten martxan 'Bizilabe' egitasmoa Elgoibarren Elhuyarrek eta Elgoibarko Udalak, eta ordutik gazteak zientzia alorrera erakartzeko lanean dihardute. Ikasleen gaitasun zientifiko eta teknologikoak garatzea dute helburu, eta bereziki, emakumeengan jarri dute begia. Emakumezkoak gerturatu nahi dituzte zientzia mundura, eta horretarako, zientzia alorrean diharduten emakume erreferenteekin dihardute lanean. Elgoibarko Udalak aitortza egin die 2019tik gaur arte egitasmo honetan parte hartzen ari diren emakumeei, 'Gu herriko stem emakumeak' ekitaldian. Bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

Zientziaz jantzi zen Herriko Antzokiko ohol-tza martitzenean. *Gu herriko stem emakumeak* ekitaldia antolatatu zuen Elgoibarko Udalak, 2019tik gaur arte *Bizilabe* egitasmoan musutruk lanean diharduten emakumeei esker emateko. 39 emakume zeuden omenaldian parte hartzera deituta, baina 20 igo ziren Herriko Antzokiko eszenatokira omenaldia jasotzera. Bizilabeko komunitatea osatzen duten tokiko enpresetako ordezkarien eskutik jaso dute oroi-garria, pin bat. DanobatGroup, Alcorta Forging Group, Berkoea Machine Tools, Elhuyar eta IMH Campus dira egitasmokoko babesle nagusiak.

Aitziber Lasa Bizilabeko koordinatzaileak hartu zuen hitza, eta gogoratu zuen zeintzuk

izan ziren *Bizilabe* egitasmoa Elgoibarren martxan jartzeko hasierako pausoak. Bilbon martxan zuten ordurako proiektua, eta han bildu ziren Elgoibarko Udaleko ordezkariekin. Elgoibarko Udalak hasieratik erakutsi zuen "interesa eta prestutasuna" eta DanobatGroup enpresak ere eman zien babesa. Elgoibar bezalako herri industrial batean horrelako egitasmoak abiatzea ezinbestekotzat jo zuen. Gerora, beste hainbat enpresa batu zitzaizkien egitasmoa, eta guztiei esker *Bizilabe* egitasmoa bide onetik doa Elgoibarren. Eskolaz kanpoko jarduera da *Bizilabe* eta gazteek zientzia eta teknologia lantzen dituzte saio horietan. Arlo horietako bokazioak pizteko aisialdian egiten diren ekintzek "eragin handia"

dutela diote sustatzaileek. *Bizilabe*ko gazteek, urtean zehar ikertzaileen eta erreferenteen bisitak jasotzen dituzte eta Elgoibarko enpresak ezagutzera ere joaten dira.

## EMAKUMEAK ERAKARTZEKO, ERREFERENTE EMAKUMEZKOAK


Gazteei zuzendutako egitasmoa da *Bizilabe*, baina bereziki emakumezkoak erakarri nahi dituzte, arduradunak konturatuta daudelako oraindik ere emakumezkoek bestelako ikasketa batzuetan jartzen dutela begia. Bideo batean erakutsi zuten zer zen *Bizilabe*, eta protagonistek eurek eman zuten egitasmoaren berri. Elgoibarren eta inguruko enpresetan talentua behar dute, eta askotan gainera, emakumezkoak nahi dituzte. Horietako bi igo ziren martitzenean Herriko Antzokiko oholtzara, Etxe Tar enpresako Amaia Gabilondo eta Soraluze enpresako Leire Garate. Beraien esperientziak partekatu zituzten Herriko Antzokira batu ziren ikus-entzuleekin. Gabilondok kontatu zuen anaia nagusia izan zuela erreferente ingeniari-tza ikasketak aukeratzeko orduan. Etxe Tar-en atzerriko enpresekin lan egiten du sarri, bereziki Alemaniakoekin, eta harrিতa dago hango enpresetan ez dituelako emakumezkoak ikusten teknologia eta zientziari lotutako postuetan: "Edo Euskal Herrian oso ondo ari gara, edo Alemanian oso gaizki, baina konbentziturago nago, hau dela bide zuzena", esan zuen. Bitxikerien artean kontatu zuen umeez galdetu izan diotela saioetan ea atzerriko hizkuntzak hitz egiten dituen, berarentzako hori lanean oso ohikoa denean. Leire Garaterentzat ere aitak eta nebak emandako aholkuak erabakiorrak izan ziren etorkizuna aukeratzekoan. Ingeniaritza egin zuen, diseinu alorrean. Azaldu zuen emakumezkoentzako lekua dagoela ingeniari-tzan, lana dagoela eta lan-baldintzak onak direla sektore horretan. Argi laga zuten biek pertsona arruntak direla, eta gainerako emakumeek dituzten zaletasun berberak dituztela. Pozik dihardute gazteekin *Bizilabe* egitasmoan lanean, eta honetan laguntzeak satisfazioa ematen diela aipatu zuten.

Alain Zulaika Niala magoak itxi zuen ekitaldia, zientzia eta matematikarekin lotutako saioarekin. Zenbakietan eta teknologian oinarritutako magia egin zuen, eta aho zabalik laga zituen ikusleak.





# ELGOIBARTIK NURBURGRINGERA, BUelta BAT EMATERA





Autoa leku batetik bestera mugitzeko garraibide soila da batzuentzat, baina hori baino gehiago ere bada beste hainbatentzat. Badira estatusarekin -edo hobe esanda estatus jakin batekin- lotzen dutenak, eta badira ibilgailuak askatasun indibidualarekin lotzen dituztenak ere. Orriotara ekarri ditugun lagunak autozaleak dira oso. Gogoko dituzte autoak -ezagurri jakin batzuk dituztenak bereziki- eta gozatu egiten dute gidatzen. Gidatu eta gozatu, horixe egin dute Nurburgringera eginiko bidaian. Izan ere, autozaleen meketako bat da Alemanian dagoen automobilismo zirkuitu ikonikoa. Idotorben batu gara lagun taldeko kide batzuekin euren ibileren berri izateko.

✍ Asier Orbea 📍 Igor Ziorranga / Asier Orbea

Igor Ziorragak, Jacob eta Abraham Bilbatuak, Jon Perez-Cortesekek, Xabier Aurtenetxe duran-garrak eta hitzordura azaldu ezin izan duten lagun taldeko beste kideek umetatik partekatzen dute autoekiko zaletasuna, eta gustua ere antzerakoa dute. "Aukeran auto deportiboak gustatzen zaizkigu: zenbat eta elektronika gutxiago eduki, askoz hobeto. Denok bat gatoz horretan. Horregegatik gustatzen zaizkigu duela urte batzuetako autoak, gure denborakoak nolabait esateko. Ez gaituzu gu auto elektriko bat gidatzen ikusiko, autoen mekanikan eskua sartzea ere gustatzen zaigulako, besteak beste", azaldu du Ziorragak. Berak 1995. urteko Mini Cooper bat dauka. 1987ko Renault 5 Turbo bat Bilbatuak, Renault Clio Sport bat Perez-Cortesekek, Mitsubishi Lancer EVO 6 bat Xabik, eta BMW E46 bat Abraham Bilbatuak.

Desioen zerrendan aurreneko postuetan zuten aspaldiko amets bat bete dute guztiek. Alemanian dagoen Nurburgingeko zirkuitu ezaguan izan ziren iaz. Bost eguneko bidaia egin zuten. "*Einbiou, einbiou...*, baina beti atzeratzen genuen ametsetako bidaia egin dugu", diote. Urteak aurrera doazela ikusita eta kuadrillakoen artean umeak ugaritzen, argi zuten zirt edo zart egiteko unea zela. Deialdia zabalagoa zen arren, joan ahal zutenekin bost laguneko konboia osatu zuten azkenean. Etxekoekin berba egin ostean, irteerarako egun bat jarri zuten, eta hor hasi zuten gurpil gaineko abentura.

*"Aukeran auto deportiboak gustatzen zaizkigu, zenbat eta elektronika gutxiago eduki, askoz hobeto"*

## ZIRKUITU IKONIKOA ETA JOSTAGARRIAK

Eifel mendietako basoen sakonean ezkutatuta dago Nürburg (Renania-Palatinado, Alemania) hiri txikia, zirkuituari izena ematen diona. Otto Creutzek diseinatu zuen 1927tik martxan dagoen autodromoko lehen pista, motor munduko ingeniari alemaniar onenen asmakuntzak eta aurre-rapenak proban jartzeko eta pilotuen talentua neurtzeko. Gaur egun ere fabrikatzaile gehienek



*Igor Ziorranga, bere autoan, Nurburgringen.*



Igor Ziorraga, Xabier Aurtenetxe, Abraham Bilbatua, Jon Perez Cortes eta Jacob Bilbatua, bidean egindako

erabiltzen dute zirkuitua azken modeloek eskaintzen dituzten gaitasun dinamikoak neurtzeko, izan 1 Formulako autoak, DTM autoak, merkatuan dauden modelo kiroltsuenak eta baita autobusak ere. Trazadurak aldaera desberdinak eduki ditu sorreratik, eta egun 26 kilometroko ibilbidea osatu daiteke Nordschleife izeneko pistan. Munduko autodromorik luzeena denak 40 bihurgune ditu ezkerretara eta 50 eskuinetara. Bihurgune itsuak ditu non-nahi, eta izen propioa duten peralteengatik ere bada ezaguna. Gidatzeko esku onak eskatzen ditu, pista estua delako (6,7 eta 9 metro bitartean) eta gorabehera askokoa: itzuli batean 300 metroko igoera-aldaketak daude. Erronka da gidari trebeenentzat ere.

Aurrez aipaturiko historia eta ezaugarri guztiengatik, Nurburgring helmuga sakratu moduko bat da gidarientzat, bai profesionalentzat, bai zaleentzat. Errones joaten diren askok ezagutzen dituzte pistaren arriskuak, edo ezagutu beharko lituzkete, trazadurarik arriskutsueneta-

rikoa baitu, eta eraiki zutenetik ia 70 gidari hil direlako. Gainera, apenas duen segurtasunez erretiratzeko eremurik. Munduko zirkuiturik zailena eta nekagarriena zela zioen 1 Formulako gidari Jackie Stewart eskoziarrak, eta "infernu berdea" [*Grüne Hölle* alemanieraz] izena asmatu zuen pistarentzat.

Martxotik azarora bitartean *Touristenfahrten* edo ibilaldi turistikoen denboraldia izaten da. Mundu osoko fanatikoek betetzen dira Nurburg inguruko hotel eta ostatuak eta arrazoi berak batzen ditu guztiak, miresmena pizten duen zirkuituari bira bat bestearen atzetik egiteko grinak. Astegunetan 30 euroko ordainsaria ordaindu behar da itzuli bat emateko eta 35 euro asteburuetan.

#### USTE BAINO ZIRRARA HANDIAGOA

Elgoibartik joan zen taldearentzat Nurburgingera ailegatzea izan zen lehen erronka, kon-



*"Kolpe tonto baten erruz, 6.000 euro inguruko gastua egitea uste baino errazagoa da. Horregatik, beharbada, ahal ekonomiko handiko jendea ikusten duzu han"*



*geldialdi batean.*

tzientziaz zaintzen dituzten arren, kezka baitzuten nola erantzungo zuten konboiko bi auto zaharrenek. Bost autoak oso ondo portatu zirela

diote eta hara iristeko bidaia ere dibertigarria izan zela. "Txantxa artean eta giro onean egin genuen bidaia luzea, 18 bat ordukoa, eta inor atzean ez gelditzea izan zen gure ardura bakarra". Bariku batean ailegatu ziren zirkuitura, eta astebururako eguraldi txarra ematen zutenez, itzuli bakarra ematea erabaki zuten taldekide batzuek, badaezpada, heldu berritan. Ordainsaria ordaindu eta sartu ziren amestutako pistan, baina uste baino gogorragoak izan ziren emozioak. "Han Porsche-rik ez baduzu, ez zarela inor ematen du, eta pistari itzuli bat emateko alokatu ahal diren autoak ere gama eta potentzia oso handikoak izaten dira, alemaniar marketakoak gehienak; Audi, BMW eta Porscheak. Horiekin partekatzen duzu zirkuitua, eta batek zu pasatzea ez da horrenbestekoa, baina lauzpabost ilaran datozenean... ostras! handia da inpresioa. Nire autoa adibidez,



*Xabier Aurtenetxe, zirkuitoaz gozatzen.*



*Nurburging zirkuitoko ataria.*

joan ginenon artean potentzia gutxien daukana da, 60 zaldi besterik ez ditu. Topera nihoan arren, kanpotik begiratuta barraskilo bat emango nuen segurunez, baina sentsazioak biziak dira horren auto txiki eta arinaren barruan. Dardarka irteten zara autotik, emozioak bor-bor", azaldu du Ziorragak.

### **ARRISKUAK ETA KOSTUAK**

Nurburgrinen, ametsa amesgaizto erraz bihur daitekeela bazekiten, eta esku freno eman da ibili dira, horren kuttunak dituzten autoak arriskuan jarri behar baitzituzten. "Kolpe tonto baten erruz, 6.000 euro inguruko gastua egitea uste baino errazagoa da. Horregatik, beharbada, ahal ekonomiko handiko jendea ikusten duzu han. Istripuren bat izanez gero, norbere gain hartu behar dira konponketa gastuak, eta zirkuituko babesak joz gero ere, norberak ordaindu behar ditu. Argi adierazten dute zenbat ordaindu beharko zenukeen lohi-babes bat joz gero, bi apurtuz gero, garabia behar izanez gero, laguntza autoa irten behar bada... eta istripu bategatik zirkuitua ixtera behartuta badaude, orduko 1.350 eurokoa da kostua. Zerrenda luze bat dute, kostu guztien berri ematen duena. Alemanak dira!". Azken finean, ordainpeko errepidea publikoa da eta, beraz, trafiko-arau batzuk bete behar dira.

*"Porscherik ez baduzu ez zarela inor ematen du Nurburgingen, eta pistari itzuli bat emateko alokatu ahal diren autoak ere gama eta potentzia oso handikoak izaten dira"*

Pistarekin eduki zuten lehen hartu-emanetik ikasi ostean, taldekideek kemena berreskuratu eta itzuli gehiago eman zituzten hurrengo egunean, eta gozatu egin zuten. Itzuliez gain, motor munduarekin zerikusia duten museoak ikusi eta lasterketak ere jarraitu zituzten. "Asteburu betea izan zen, ekitaldiz gainezka zegoen asteburu aukeratu baikenuen, jakin gabe. Ezusteko atsegina izan zen. Auto ikusgarriak bertatik bertara ikusteaz gainera, gure gustu berdinak dituen jendea ezagutzeko aukera izan genuen eta gure autoak hobetzeko ideiak ere ekarri genituen".

Abiadura, arriskua eta ilusioa uztartu dituen bidaiatik pozik itzuli ziren, eta dagoeneko hasi dira itzulera prestatzen, ikasi duten guztia praktikan jarri eta esperientzia hobetzeko. Itzuliko dira itzuli gehiago ematera.



## Musika Eskolak hasiko ditu inauteriak Elgoibarren



**E**guen Zuri Egunez hasiko ditu Inazio Be-reziartua musika eskolak inauteri festak Elgoibarren. Eskolako txaranga kalejiran irtengo da 17:30ean Kalegoen plazatik, eta segidan, koro eta dantza ikasleen emanaldia izango da Maalako parkean. Amaieran, kalejiran joango dira denak musika eskolaraino.

### Barikuan, Euskal Inauteria

Barikuan, berriz, Euskal Inauteria irudikatu du Elgoibar Ikastolako komunitateak. Mailaka banatuta, euskal inauterietako ohiko pertsonaiak aterako dituzte kalera, eta herriko hainbat txokotan euskal kantuak dantzatuko dituzte. 15:00ak aldera irtengo dira ikastolatik, eta herriko kaleak kolorez jantziko dituzte. Kalegoen plazan elkartuko dira gero ikasle guztiak, eta han amaituko dute kalejira. Euria egingo balu Ikastolan bertan egingo lukete ospakizuna.



### Mendaroko playback lehiaketan izena emateko epea zabalik dago



Arno Guraso Elkarteak martxoaren 1erako antolatu du inauterietako playback lehiaketa, eta otsailaren 25era arteko epea jarri dute izena emateko. Interesatuak [arnoekintzak@gmail.com](mailto:arnoekintzak@gmail.com) helbidera idatzi behar dute, ondorengo informazioa zehaztuta: taldearen izena, partaide kopurua, adin-tartea, taldeko norbaiten kontaktua eta abestia bera MP3 formatoan.

### Elgoibarren Atxutxikaraokea eta bertsio gaua



Elgoibarren ere egongo da kanturako eta dantzarako aukera inauterietako zapatuan. 17:30etik aurrera, Atxutxikaraokean abesteko aukera izango dute ume zein nerabeek, euskaraz. Gauean, berriz, gazte eta helduen txanda izango da. Azken urteetan bezala, bertsio gaua egingo dute Maalan, eta nahi dutenek bakarka zein taldean parte hartzeko aukera izango dute. Taldekako irabazleak 250 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 170 euro. Bakarkako irabazleak, berriz, 170 euroko saria izango du, eta bigarrenak 150 eurokoa. Nahi duenak [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus) webgunean eman dezake izena aurrez, eta bes-tela, egunean bertan ere egingo da aukera.



## Elgoibarko Euskaraldia taldeko kideak omendu dituzte Porrotx eta Marimotots pailazoek

**P**orrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta Txapasek *Ostirala iritsi da!* ikuskizuna taularatu zuten barikuan Herriko Antzokian, eta detaile bat eduki zuten Euskaraldia antolatzen aritu den herriko taldearekin. Katxiporretakoek ikuskizunean parte hartzera gonbidatu zituzten Euskaraldia taldekoak, eta orain arte egin diren hiru Euskaraldietan talde eragilean aritutakoek jaso zuten oholtzara igotzeko gonbita. Imanol Larrañagak berba egin zuen taldekoen izenean eta ariketaren laugarren ekitaldirako ilusioz eta lanez gainezka daudela azaldu zuen. Maiatzaren 15etik 25era izango da aurtengo ekitaldia.



### Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du BARRENEK

BARRENEK Inauterietako Argazki Lehiaketa antolatu du, herritarren parte-hartzea sustatzeko. Elgoibarko edo Mendaroko inauterietan ateratako argazkiak soilik onartuko dira, eta partaide bakoitzak gehienez hiru argazki bidali ahal izango ditu. Zehaztu behar dira egilearen izena eta kontakturako telefonoa. Argazkiak bidaltzeko bi modu daude: BARREN.EUS webgunean argitaratuko dugun formularioaren bidez edo 688 655 658 telefonora whatsapp mezua bidalita. Martxoaren 5a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna, eta ondoren, bozketa hasiko da. Bi sari egongo dira, epaimahaiarena eta herritarrena. Martxoaren 6tik 10era bitartean hiru argazki gustukoena aukeratzeko bozketa egingo dute herritarrek, eta



martxoaren 12an jakinaraziko ditugu irabazleak. Lehen saria bi lagunentzako gaua eta gosaria Abatetxe landetxean izango da, eta bigarrena Errigorako produktu sorta. Jasotako argazkiak BARRENEK artxiboan gordeko dira, eta, noizbait argitaratuz gero, egilearen izena adieraziko da.

### Martxoaren 11ra arte egongo da idazlan lehiaketan parte hartzeko aukera

Ikasleek euskaraz idazteko trebetasuna lantzeko idazlan lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, eta martxoaren 11ra arteko epea dago parte hartzeko. Elgoibarko ikastetxeetan ikasten dabilzan 8-18 urte bitarteko ikasleek edota, Elgoibarren erroldatuta egonik beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabilzan ikasleek parte hartzeko aukera izango dute. Idazteko gaia

librea izango da, baina lehiaketara aurkezten diren lanak aurrez beste inon argitaratu eta sari-tu gabeak izan behar dira. A4 neurrian aurkeztu behar dira idazlanak, alde bakarretik idatzita eta ordenagailuz (LH3 eta LH4koek eskuz idatzita aurkezteko aukera dute). Sari gisa, 50 eta 120 euro bitarteko bonoak banatuko ditu Udalak, herriko dendetan erabiltzeko.

## 140 bat piano ikasle batuko dira bihar, Elgoibarko Piano Topaketan

Euskal Herriko musika eskolen elkarteak antolatuta, piano topaketak egingo dituzte asteburuan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako zazpi herritan, eta, Elgoibarren egingo dute topaketa horietako bat bihar. Inazio Bereziartua Dantza eta Musika eskolatik jakitera eman dutenez, 140 pianojole inguru elkartuko dira eta 50 inguru izango dira Elgoibarkoak. Lau txandatan banatuta arituko dira pianojoleak, 09:30etik 18:00ak ingurura arte. Ume guztiei topaketako zapia jarriko diete, eta txanda bakoitzaren bukaeran diplomak banatuko dizkiete.



### Eduardo Arrillaga saritu dute Nazioarteko Asisa Foto argazki lehiaketan



31 herrialdetako 242 argazkilarik hartu dute parte Asisafoto nazioarteko argazki lehiaketan, eta Elgoibako baserrietan ateratako irudiak aurkeztu zituen lehiara Eduardo Arrillaga argazkilaria elgoibartarrak. Azken 30 urteetan ontzen ari den egitasmo baten parte dira argazki horiek, eta landa inguruaz gainera, gure kultura ere jasotzen dute. Gai libreko monochromo atalean aipamen berezia jaso du Arrillagak. 2014an ere saritu zuten Dominikar Errepublikan ateratako argazki sorta bategatik, eta, 2023an beste sari bat jaso zuen Buñoleko *Tomatina* jaian ateratako argazki bategatik.

### 'Ni ta nitarrak' antzerkia emango dute gaur, Mendaron

AED euskara elkarteak sortutako *Ni ta nitarrak* antzezlanaren emango dute Mendaron, gaur. Maria Osese idatzitako gidoia da eta Iholdi Beristain aktoreak interpretatzen du. Maria Isabel izango da Beristain taula gainean, eta egunerokotasuneko kontuez ariko da, "umoretik eta mediokridadearen apologia garbia eginez". 18:00etan izango da, San Agustin kulturgunean. 16 urtez gorakoentzat da.



## Sinuösek inauterietako kontzertua emango du gaur zortzi

Sinuöse elkarteko Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek prest dute inauterietarako prestatu ohi duten emanaldia. Datorren barikuan izango da, 23:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Kontzertu berezi honen 29. ekitaldia izango da aurtengoa. 1997an hasi ziren Patxi Zabaleta eta Iban Urizar inauterietan musika saio bereziak ematen. Malape tabernan ematen zuten kontzertua hasierako urteetan. Ondoren, Herriko Antzokia edota Toletxe taberna izan zituzten eszenatoki, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan ematen dituzte musika saioak. Kontzertu desberdinak eta bereziak egiteko asmoz hasi ziren, eta esperimentazioa da saioen ezaugarri nagusietakoa. Aurten herritarren parte-hartzea sustatuko dute eta sorpresaren bat ere izango dela aurreratu dute.



*Hasierako urteetan Malapen emandako kontzertu bateko argazkia.*

### Elgoibarko Ludotekan eta Gaztelekuan ere ospatuko dituzte inauteriak

Datorren astean hasiko dituzte inauterietarako prestaketak Elgoibarko Ludotekan eta Gaztelekuan. Eguaztenean maskara tailerra izango dute Ludotekan, eta inauterietarako prestaketa egingo dute Gaztelekuan. Eguen Zuri egunean, berriz, aurpegiak margotuko

dituzte Ludotekan, eta torradak egingo dituzte Gaztelekuan. Barikuan, karaokea izango dute Gaztelekuan eta zapatuan, bazkaria egingo dute Ludotekan. Azkenik, Just Dance txapelketa egingo dute martxoaren 2an, Gaztelekuan.

### Elkarrekin ikusi dute 'Irabazi arte!' telesailaren denboraldi berriko lehen atala Mendaron

Euskal Herriko zinema askotan eman zuten joan zen asteburuan ETB1eko *Irabazi arte!* telesailaren lehen atala, eta Mendaroko umeek ere domekan izan zuten laugarren denboraldiko estreinaldia pantaila handian ikusteko aukera, telebistan estreinatu baino astebete lehenago. Udalak pantaila jarri zuen udaletxeko sarreran, eta hantxe elkartu ziren 40 bat ume. Ez da lehenengo aldia Udalak pantaila hori jartzen duela. Gauza bera egin zuen *Goazen* telesailaren estreinako atala eman zutenean, bai eta beste zenbait kirol emanalditan ere: esaterako, iaz buruz buruko pilota txapelketako finala jokatu zutenean edota Realak



Bartzelonaren kontra jokatu zuen Erreginaren Kopako finalean.



## Ehundik gora mendizalek hartu dute parte Olatz haranera eginiko irteeran



**E**guraldiak ez du gehiegi lagundu Morkaikok eta herriko ikastetxeek elkarlanean antolatzen dituzten ume eta familientzako mendi-irteeren aurtengo denboraldian. Bi irteera bertan behera laga behar izan zituzten, eguraldi alertengatik, eta hirugarren batean euriteak harrrapatu zituen. Olatz haranera egin beharreko irteera izan zen bertan behera laga behar izan zutenetako bat, baina domekara aldatu zuten eta orduan bai eguraldi aparta izan zuten mendian ibiltzeko. 57 ume eta beste horrenbeste heldu

elkartu ziren Mutriku aldera joateko. Mintxetan elkartu eta autoz joan ziren Olatzera. Eliza paretik hasi zuten ibilaldia eta Olatz PR GI-47 ibilbidea osatu zuten. "Aldapa handirik gabeko ibilbide ederra egin genuen Olatzeko paraje magikoaz gozatuz. Zelaiak, artadiak, baserriak, animaliak, kobazuloak... gauza asko du erakusteko Olatzek", azaldu dute mendizaleek. Hiru orduko ibilaldiaren ostean, bazkalordurako itzuli ziren Elgoibarrera. Hurrengo mendi-irteera martxoaren 16an izango da.

### Bolada onean jarraitzen dute Sanloko senior taldeek

Sanlo eskubaloi taldeko senior mailako hiru taldeek irabazi zuten joan den asteburuan, bigarren aldiz jarraian. Azken jardunaldiari dagokionez, Euskal Ligan diharduen Malapek 26-28 irabazi zion Zuazori Barakaldoko Lasesarren jokatu zuten neurketan. 15 jardunaldiren ostean, sailkapeneko laugarren postuan daude 18 punturekin, Urdaneta liderrarengandik 10 puntura. Zapatuan hirugarren sailkatuaren aurka, Urdaibai Bilboats taldearen aurka, jokatu dute Olaizagan (18:00). Bizkaitarrek bi puntu gehiago dituzte sailkapenean. Senior gizonetzkoen Alcorta F.G. taldeak garaipen argia lortu zuen joan den zapatuan Olaizaga kiroldegian jokaturako partidari, 35-20 hartu baitzuten mendean Tolosa. Liga bukatzeko zortzi partidaren faltan, sailkapeneko 5. postuan dago Alcorta, 24 punturekin. Puntu bat gehiago dute Muskizek eta



Urdanetak, eta 5 eta 8 puntura daude Zarautz liderra eta bigarren dagoen Usurbil. Lurraldeko bigarren mailan jokutzen duen Pizerria Salento taldeak ere irabazi egin du azken bi jardunaldietan; joan zen astean, 26 eta 29ko emaitzarekin, Pulporen kontra. (📸 Jabi Leon)

## Joseba Etxeberria entrenatzaile kargutik kendu du Eibarrek

Joseba Etxeberriak ez du jarraituko S.D. Eibar Bigarren Mailako taldearen entrenatzaile postuan. Talde armaginak domekan jakinarazi zuen erabakia, eta penaz hartu badu ere, onartu beharra duela adierazi du entrenatzaile elgoibartarrak. "Agur esateko ordua iritsi da. Aurten ez dira gauzak ondo irten. Eskerrak eman nahi dizkiet armagin guztiei, eman didaten babes guztiagatik eta eurekin izan dudan harremanagatik. Zorterik onena opa diet etorkizunerako", adierazi du. Azken 15 urteetan Eibarrek kargutik kendu duen estreinako entrenatzailea da Etxeberria. Garaipenik gabeko bi hilabeteko bolada txarraren ondotik etorri da erabakia. Aurreko denboraldian ailegatu zen Etxeberria Eibarrera eta kontratua 2025eko ekainaren 30era arte luzatzea adostu zuten bi aldeek martxoan, baina kontratua eten du orain Eibarrek. Etxeberria 75 partida ofizialetan izan da Eibar taldeko entrenatzailea. Karguan eman zuen aurreko denboraldian, Lehen Mailara igotzeko fasea jokatzeke sailkatu ziren, lehen kanporaketan



Oviedok kanporatu bazituen ere. Denboraldi honetan, berriz, Ligako 27 jardunaldi jokatu eta gero, sailkapeneko 17. postuan dago Eibar, 33 punturekin: bederatzi partida irabazi, sei berdindu eta hamabi galdu ditu Ligan. Armaginek bost puntura dute jaitsierako lehenengo postuan dagoen taldea. Beñat San Josek ordezkatzuko du Etxeberria.

### Zabalik dago Aste Santuko Kirol Campuserako izena emateko epea



Apirilaren 14tik 25era bitartean egingo dute Aste Santuko Kirol Campusa, eta apirilaren 4an amaituko da izena emateko epea. 2013 eta 2018. urte bitartean jaiotako haurrek (biak barne) parte hartu ahal izango dute Elgoibar-ko Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen campusean. Partaideek hainbat joko eta kirol egiteko aukera izango dute aire librean zein herriko kirol instalazioetan: Olaizaga eta IMH kiroldegia, Mintxeta eta Ikastolako frontoia.

Prezioek gora egin dute iaiztik. Patronatuko abonatuak 53 euro ordaindu beharko dute eta 59 euro abonatuak ez direnek. Gizarte-laguntzaren bat jasotzen duten familiek %70eko deskontua izango dute, eta familia ugariak edo guraso bakarrek ere izango dute deskontua; horiei %30eko deskontua egingo diete. Olaizaga kiroldegian eskuratu daiteke informazio gehiago, bai eta 943 744 415 telefono zenbakira deituta ere.

## Pala txapelketa 'herrikoia' antolatu nahi dute Lagunak Pilota Eskolakoek

Lagunak Pilota Eskolako pala txapelketa antolatu du, baina aurten ukitu berezia eman nahi diote. Herritarrekin eta herritarrentzat eginiko txapelketa herrikoia izango da aurtengo, eta bereziki, emakumezkoak animatu nahi dituzte parte hartzera. Aitor Bergua, Oihana Apellaniz eta Hector Garrido Pilota Eskolako ki-deek eman dituzte azalpenak: "Konturatu gara azken urteetan kanpotik etortzen direla txapelketetan ibiltzen diren bikote asko. Maila oso altua daukate, eta horrek herritarrek atzera botatzen ditu". Iazko edizioan, esaterako, partida batzuk oso desorekatuak izan ziren: "Desoreka hori ez da erakargarria ez jokalarientzat eta ezta ikusleentzat ere, eta guk plaza jendez beteta ikusi nahi dugu".

Pilota plazara eraman eta herritarrek lagun giroan palaz gozatzea nahi dute. Duela urte batzuk baldintza jarri zuten gizonezkoen txapelketarako: jokalaria Elgoibarkoak edo Elgoibarrekin lotura zutenak izatea, gutxienez bikoteko bat. Ondo funtzionatu zuen eta, aurten, emakumezkoetan jarriko dute baldintza hori. Horrez gain, aurten izena ematea doan izango da, eta Udalaren laguntzari esker, Ikastolako frontoia erabili ahal izango dute parte-hartzaileek entrenatzeko, libre dagoen orduetan.



Interesatuak martxoaren 7ra arte dute izena emateko aukera. Emakumezkoetan izena emateko 646 801 407 telefonora (Yolanda) bidali behar da mezua eta gizonezkoetarako, berriz, 690 612 927 zenbakira (Aitor). Txapelketa apirilean hasiko da. Lehenengo fasea ligaxka estiloan jokatu dute, eta gero partida bakarreko kanporaketa bidez erabakiko dira finalistak. Txapelketako finala ekainaren 20an izango da Kalegoen plazan. Amaieran, parte-hartzaile guztiek afaria egingo dute.





**Mikel Leon**  
inmomikel@gmail.com

**747 459 343**  
San Ignazio kalea 1,  
20870 Elgoibar

**Mikel**  
**INMOBILIARIA**



@mikel\_inmobiliaria

WEBGUNE BERRIA! Bisita gaitzazu! [www.inmobiliariamikel.com](http://www.inmobiliariamikel.com)




















## LANA

**Eskaintza**

DBH3ko ikasle bati matematika eta ingeles eskola partikularrak emateko pertsona behar dugu. Astelehen, astearte eta asteazken arratsaldetan ordu eta erdiz, 16:00etatik 17:30era edo 17:00etatik 18:30era. **656 774 215** (Amaia)

Adineko emakumea zaintzeko laguna behar dugu. Asteazkenetik igandera, 18:30etik 20:30era, eta larunbat eta igandeetan 10:30etik 12:30era. Kontratua eskaintzen da. Beharrezkoa lan-baimena eta titulu soziosanitarioa izatea. **606 715 673**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Arratsaldez edo gauez. **642 701 710**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan, zein orduka. **642 180 611**

Garbiketak egiteko prest nago. Orduka. **631 020 169**

Edozein lan egiteko prest nago. Orduka. **612 540 008**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. **637 222 318**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia. Arduratsua naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. **632 355 103**

Edozertan lan egiteko prest nago. **614 179 659**

Garbiketa lanak egingo nituzke. Formazioa daukat. Berehala hasteko prest. Orduka. **632 721 342**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **661 063 891**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **614 114 360**



Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nagoen erizaina naiz. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, jardun osora edo orduka. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **654 994 405**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **605 402 030**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Orduka nahiz jardun osora lan egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **603 727 067**

|   |  |
|---|--|
|  <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos<br/>Euzkoako Enkainatzaileak<br/>Luzaride Kontsekoa</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b><br/><b>rosapf@telefonica.net</b></p> | <p><b>Etxebizitza bat erosi dut, lehen jabe bakarrarena zen eta zatiketa horizontala egin gabe zeukan etxalde batean [jabetza horizontala ondasun higiezin bateko jabeek beste jabeekiko betebeharrak eta eskubideak ezartzen dituen arau multzoa da]. Jakin nahiko nuke ea beharrezkoa den etxaldea jabetza horizontalaren arabera zatitzea.</b></p> <p>Jabe bakarrarena den etxalde bat jabe gehiagoren esku gelditzen denean ezinbestekoa da eraikinaren zatitze horizontala egitea, bereziki jabeekide bakoitzak ordaindu behar duen gastu komunaren portzentajea eta ondasun higiezinaren gaineko zerga kalkulatzeko orduan arazorik sor ez dadin. Zatitze hori egin ezean legeak ezartzen du ondasun-erkidegoei dagokien araudia aplikatu behar dela gastuak zeinek eta zein neurritan ordaindu behar diren kalkulatzeko. Zatitzea onartzen bada, eskritura publikoa egin beharko da eta Jabetza Erregistroan jaso aldaketa, balioa izan dezan. Dokumentu pribatu bat ere egin daiteke, baina hori ezin da Erregistroan eraman, eta beraz, sinatu dutentzat bakarrik izango du balioa, baina ez gerora ager daitezkeen hirugarren pertsonentzat.</p> <p>AHOLKUA: Prozesu hori konplikatu xamarra denez, gomendagarriena profesional bat egitea da. Kasu horretan, egokiagoa izango zen etxalde horren jabeak eraikinaren zatitze horizontala egin izan balu, etxebizitza bat saldu aurretik. Izan ere, etxejabe guztiak jarri beharko dira ados horretan, eta baita etxebizitza edo lokal bakoitzari ezarriko zaion kuotaren zenbatekoan ere.</p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b><br/><b>San Bartolome, 2</b></p> |
|---|--|

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,  
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Jakes!**  
10 urte potolo!  
Segi horrelako  
jator hazten.  
Maitasunez,  
etxekoen partez!  
Muxuak.



Zorionak, **Hodei!**  
Igandean 10  
urte! Ondo pasa  
zure egunean.  
Muxuak, fami-  
liako guztion  
partez.



Zorionak, **Irati!**  
Astelehenean  
7 urte! Oso  
ondo ospatu!  
Etxekoen eta  
bereziki, Eireren  
partez, muxu  
handi bat.



Zorionak, **Nikole,**  
eta muxu pila  
bat etxekoen  
partetik! 11  
urte handi! Segi  
holaxe.



Zorionak, **txapel-  
dun!** Azkenean  
iritsi da eguna!  
5 urte! Ilusioz  
ospatuko dugu  
igandean. Muxu  
bat June, Libe,  
Aiur eta familia  
osoaren partez!  
Ikaragarri maite  
zaitugu!

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,  
TEMPUR FORM  
KOLTXOI BAT EROSTEAGATIK.  
(IKUSI BALDINTZAK)\***



**TEMPUR  
FORM  
KOLTXOIA**

\*TEMPUR burko original bat oparitu da. M. 05/2019/07/01.  
Ikusi behar: TEMPUR FORM koltxoia erosteko orduan  
edo burko oparitu berriz ikusi behar. TEMPUR koltxoia erosteko.  
TEMPUR FORM koltxoia erosteko. 2024ko azararen  
artikuluak eta baldintza erabiltzeak.

**943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**



**ArmeriaEskola<sup>x</sup>**



Zatoz ate irekietara!

MARTXOAK 26

MAIATZAK 6



AUKERARIK  
ONENA,  
ETORKIZUNA  
DUENA

## 21 BARIKUA

**18:00** Antzerkia: 'Ni ta nitarrak'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

**18:30** 7. arteari buruzko kafe tertulia, Loredi Salegirekin. Haizeak antolatuta, Lilan.

## 22 ZAPATUA

### AZKEN ZAPATUKO FERIA

**09:00** Elgoibarko baserrietako eta Artalde Artisau Taldekoen produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

**11:00** Atabal danborrada elkartekoek txosna zabalduko dute.

**12:00** Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

**Eguerditik aurrera**, ganadu erakusketa, Kalebarren plazan.

## 24 ASTELEHENA

**16:00** 'Desira' sexu aholkularitza zerbitzua. Lilan. Banaka, binaka edo talde txikitan.

Hitzordua hartzea komeni da: [desiraelgoibar@gmail.com](mailto:desiraelgoibar@gmail.com)

**17:30** Bilerak: 'Berpiztuko al dugu Trixixapo?'. Herriko aisialdi hezitzailea berpizteko bilera, Mendaron. Udaletxean.

**18:00** Hausnarketa taldea: 'Izugarri maite nau'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan izango da, emakumeentzat, ele bitan.

## 25 MARTITZENA

**16:00** Zaintza eta etxez etxeko aholkularitza zerbitzua, Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak. Lilan. Txanda hartu behar da: 688 640 983 / [elgoibarzaintza@gmail.com](mailto:elgoibarzaintza@gmail.com)

## 26 EGUAZTENA

**16:00** Erorketak sahiesteko tailerra. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

## 27 EGUENA

**16:00** Erorketak sahiesteko tailerra. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

## 28 BARIKUA

**19:00** Topaketa: Elgoibarko Isiltasunaren Eskola. Jose Cruz Igartuarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



# Inauterietako argazki lehiaketa

Sariak

- **EPAIMAHAIAREN SARIA:** Bi lagunentzako gau bateko egonaldia, afaria eta gosariarekin Elgoibarko Abatetxe landetxean. **DANOBATEk emandako oparia.**
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Errigorako produktu sorta.

- Bidali zuen inauterietako argazkiak [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera edo **688 655 658** whatsapp zenbakira.
- Eman zure izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat. Parte hartzeko azken eguna: **martxoaren 7a.**
- Lehiaketaren oinarriak: [barren.eus](http://barren.eus)



**barren**



## INAUTERIAK 2025 ELGOIBAR

### OTSAILAK 26, EGUAZTENA

**16:30** Maskara tailerra. Ludotekan.

**16:30** Inauterien prestaketa. Gaztelekuan.

### OTSAILAK 27, EGUEN ZURI

**16:30** Aurpegia margotzea. Ludotekan.

**17:00** Torradak egiteko tailerra. Gaztelekuan.

**17:30** Musika Eskolako kalejira. Kalegoen plazan hasita.

**Jarraian**, musika eta dantza, koruko ikasleekin eta Musika Eskolako bandarekin. Maa-lako partean. Amaitzean, kalejiran joango dira Musika Eskolara.

### OTSAILAK 28, BARIKUA

**15:00** Euskal Inauteriak. Elgoibar Ikastolak antolatuta. Mailaka banatuta, herriko hainbat lekutan egingo dute dantza ikasleek. Azkenik, Kalegoen plazan batuko dira guztiak.

**17:00** Karaokea. Gaztelekuan.

**23:00** Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

#### 2025eko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

#### OTSAILA

|               |                   |
|---------------|-------------------|
| 21 BARIKUA    | Barrenetxea       |
| 22 ZAPATUA    | ■ Soto / ■ Yudego |
| 23 DOMEKA     | ■ Soto            |
| 24 ASTELEHENA | Garitaonandia     |
| 25 MARTITZENA | Arriola           |
| 26 EGUAZTENA  | ■ Fernandez       |
| 27 EGUENA     | Yudego            |
| 28 BARIKUA    | ■ Oruesagasti     |

2025 urte guztian, gauez:  
Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

|   |   |  |
|---|---|--|
| ■ Fernandez:<br>Herriko<br>Enparantza,4<br>Garagartza<br>(Mendaro)<br>943 756 142 | ■ Soto<br>Rekalde, 1<br>(Soraluze)<br>943 751 638 | ■ Oruesagasti:<br>Kalebarren, 9<br>(Soraluze)<br>943 751 384 |
|---|---|--|

### Zinea Herriko Antzokian



#### 'Las vidas de sing sing'

21 barikua: 19:00

22 zapatua: 19:00 / 22:15

23 domeka: 19:00

24 astelehena: 21:00



#### 'Vaiana 2'

23 domeka: 16:30

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### JATA JBCP4000 ILE-EBAKIGAILUA

39 €



- Ile-apainketarako eta barberia profesionalerako makina, kablearekin edo kablerik gabe.
- Altzairuzko hortzak
- Bateria kargagarria
- 2000 mAh bateria
- LED pantaila adimenduna
- 2.5 orduko autonomia
- 4 ebaketa-gida
- 3 orduko karga

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendakto prezioak. Produktuak agortu arte.

## Egutegia I

Anjel Ugarteburu



**D**enborak ez du etenik; denborarik ez dagoela ere esaten dute jakintsuek; etengabeko mugimendua bakarrik. Bizi garen lur-planeta hau jirabiran dabil eguzkiaren bueltan eta hari bizkarra ematen diogunean dator iluna eta aurpegia erakusten digunean argitzen dira bazterrak gure begien ikusgarri. Mugimendu horrek etenik ez duenez, geuk bereizten ditugu iragana eta oraina, atzo eta gaur, iaz eta aurten. Ibaia beti da ibai, baina ura badoa, ubidetik ura datorren artean.

Mendebaldeko zibilizazioan erromatarrekin hasi ziren egunak, hilabeteak eta urteak bereizi eta izendatzen. Greziarrek ezagutzen zuten hemeroteca (egunen kutxa) baina ez zuten kalendariorik. Horregatik esan ohi da gauza bat egiteko planik edo itxaropenik ez dagoenean *ad calendas grecas*. Horrek ez du esan nahi, lehenago denbora eta aroak bereizten ez zituztenik. Betidanik bizi izan ditu gizakiak hotzaren eta beroaren, lehorre eta eurite zein haizetearen ondorioak; baita ortzian eguzkiak eta ilargiak egiten dituzten ibilbideak eta izarren keinuak ere. Urtea (ur+te) deitu genion euskaraz uraren zikloari, lehorraldiari lehor+te, eurijasa luzeari euri+te eta haizealdiari haize+te bezala. Kalendarario eta egutegi beharrik gabe bizi izan da gizakia, baina naturaren zikloen jakitun.

Beste kultura batzuk bezala, gu ere beharrak edo premiak eramán gintuen etengabeko mugimendua izendatzera. Lurra lantzen hasi ginetetik, Neolitikotik, dakigu fruitu sikuak (urrak, intxaurrak, ezkurak) aldi jakin batean ditugula jangai. Hortik *urria*. Azaroa (*hazila*) hazia ereiteko aroa dela (mendebaldeko euskalkian, orain dela gutxi arte, *semendia* (semen). Erromatarrek eraku-

tsi omen ziguten udazkena, azaroa (hazi aroa) zela garia, oloa zein garagarra ereiteko sasoia, uztailan uzta jaso nahi izatekotan. Urtarrila eza-guna zen mendebaleko eta iparraldeko euskakietan, baina Gipuzkoan erabiliago zen *ilbeltza*. Ez du azalpenik behar. *Otsailak* otsoekin ei du lotura. Artzainak eta baserritarrek negu beteko elurteetan etxe ondora edo artaldeetara hurbiltzen ziren otsoen beldur. *Apirila*, *jorraila* zen nire ume denboran. Udaberriari erretzen ziren landareen ondoan belar txarrak kentzeko sasoia, *jorratzeko* sasoia. Iratxe edo iratiak mendia okrez margotzen zutenean zen *iraila*. Funtsezkoa ira edo garoa ere baserri eta txaboletan korta edo ukui-luak ganaduen atsedenerako etzanleku bigunak prestatzeko. Iparraldeko euskalkiak, eguzkia jarri zigun gure egutegiaren erdigunean: *ekaina* (eki edo eguzki+gaina). Udako solstizioa edo eguzkiak ortzian puntu gorena hartzen duen aldia. Haiek zerura begira, hegoaldeko baserritarrok baba (*bagila*) edo garagar (*garagarrila*) uztari adi geunden artean. Argi dago bizimoduan sortzen diren behar edo premietatik datozela, hemen eta han, izendapenak. Hurrengoan gehiago.





## *Pedro Maria Bengoa Muguerza*

2025eko urtarrilaren 8an hil zen, 66 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,  
baina beti izango zaitugu  
gure bihotzean.***

Kaskante baserrikoak



I. URTEURRENA

## *Jon Ulazia Iraolagoitia*

2024ko otsailaren 22an hil zen, 61 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 23an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Ez ditugu sekula ahaztuko  
elkarrekin bizi izandako uneak  
Asko maite zaitugu.***

Etxekoak



I. URTEURRENA

## *Iosu Etxaniz Aranberri*

2024ko otsailaren 24an hil zen, 74 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 23an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan  
utzi gaituzu penetan,  
orain gure ametsetan  
bizirik zaude benetan,  
zeruko izarretan  
eta gure bihotzetan.***

Sendiak





2025eko martxoaren 1ean

# ATXUTXI KARAOKEA

MAALAKO PARKEAN  
17:30-19:00



2025eko martxoaren 1ean

# BERTSIO GAUA

Sariak:

Taldeko 1. saria: 250€

Taldeko 2. saria: 170€

Bakarkako saria: 170€


Sari berezia: 150€

00:00-02:00

MAALAKO PARKEAN

Izen-ematea aurrez edota egunean bertan

Informazioa: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

 943 741 746



ELGOIBARKO IZARREA  
Kulturaren Tresura



ELGOIBAR  
UDALA  
AJUNTAMIENTO